

## “KUKUBEL”

### 1. AURKEZPENA

*Egunsentiko giroan Kukubel bere artaldearekin herria zeharkatzen du airea kanta batek osatzen duelarik.*

#### **KANTA:**

Begiak adi, ahoak zabal eta erne belarriak  
zer ote dakar gure artera Kukubel maitagarriak?

Neskatxa gazte, musika zale, aita ez amarik ez du  
ardiak zainduz ekiten dio, txistua jo eta abestu.

Txirula, ttunttun, txilibituak, txistuak egin eta jo  
dirurik gabe bizi da baina, pozik dago, ze arraio!

*Artaldea larrera heltzean narratzailearen papera hartzen dute.*

Ardia 1: Kukubel artzain neska gaztea da, umezurtza eta musikazale amorratua.

Ardia 2: Berak egiten ditu arte eta ezepeleko instrumentuak, ttunttun, txistu,  
txilibitu, txirulak, saxofoiak, kontrabaxuak ...

Ardia 3: Aizu Txakili! Pasatu gabe, txirula eta flauta besterik ez du egiten.

Ardia 4: Eta jotzen ere bai, inguru guztia poz-pezik glorian dagoela.

Ardia 5: Begira, begira! Badator gure Kukubel!

*Kukubel larrean agertzearekin batera ardiek koroa osatzen dute eta kantari elkarrizketan hasiko dira.*

#### **KANTA:**

Ardiak: Kaixo Kukube-e-e-e-e-el, egunon artzain laguna  
mendiko larre be-e-larretan emango dugu eguna.

Kukubel: Egunon denoi, adiskideak, kaixo Gorri eta Txuri,  
ongi etorri lagun artera ahari, ardi eta axuri.

Ardiak: Kukube-e-el artzain maitea, ez gu makilaz egurtu  
be-e-estela zure artaldea erabat be-e-eldurtu.

Ardiak: Kaixo Kukube-e-e-e-e-el, egunon artzain laguna  
mendiko larre be-e-larretan emango dugu eguna.

Kukubel: Txorien kanta, txorrotxioak txirulaz jotzen ditut nik  
ardiak pozik ibil zaitezten soinu alai entzunik.

Ardiak: Larrerik larre be-e-har dugu artxakurrekin ibili,  
Potxo ta Pitxi alfer xamarrak, trebe-e-e-a Txakili.

Ardiak: Kaixo Kukube-e-e-e-e-el, egunon artzain laguna  
mendiko larre be-e-larretan emango dugu eguna.

- Kukubel: Ezpel zurezko txirulatxo bat egingo dut zuentzako, gaur errapean esne goxoa gehien duenarentzako.
- Ardiak: Be-e-e-lardi goxo-goxora etorri gara zurekin, eskerrik asko Kukube-e-el artzaintzari trebe ekin.
- Ardiak: Agur Kukube-e-e-e-e-el, egunon artzain laguna mendiko larre be-e-larretan emango dugu eguna.

*Ardiek belarra jateari ekiten dioten bitartean bera txirulak egiten hasten da.*

*Txori batek egindako honako soinu hau entzuten duenean, horixe bera ateratzen saiatzen da, eta egia esan behar bada lortu ere egiten du.*

## **2. SORGINA**

*Musika jokoetan loak hartu du Kukubel eta adineko emakume baten negar zotinek iratzartzen dute.*

### **2 A Atso itxura**

ATSOA- (*Negarrez*).

KUKUBEL - Zer gertatzen zaizu andrea?

ATSOA - Urte asko daramazkit mundu honetan eta banaka batzuk baino ez zaizkit gelditzen bizitzeko eta egoera honek tristatu egiten nau.

KUKUBEL - Nire eskuetan balego zu alaitzea gustura egingo nuke egin beharrekoa.

ATSOA - Ba zerbait egingo bazenu ...

KUKUBEL - Txirula joko dizut, musikak tristenak alaitzen ditu eta ...

*Kukubele txirula jotzen hasten da eta atsoak poza handia hartzen du. Irribarre eta irrintzien artean jai giroan ari dira ahalik eta Kukubelek alde egin behar duen arte ...*

ATSOA - Segi, segi neskatoa ...

KUKUBEL - Beno andrea nik ardiengana joan behar dut, bihar ordu berean bertan bazaude beste saiotxo bat egingo dugu.

ATSOA - Baina nire azken urteak zoriontsu igarotzeko zure txirula izatea gustatuko litzaidake.

KUKUBEL - Ba ... (*Hasieran zalantza une bat izan arrea azkenean ...*)Tori andrea eta zoriontsua izan! Nik beste bat egingo dut ahal dudanean.

ATSOA - Eskerrik asko!

### **2B Eskale dotorea**

*Kukubel ezertaz ohartu gabe Sorginak , itxura aldatuz, andre dotorearen irudia hartzen du ...*

SORGINA- Egunon Kukubel !

KUKUBEL- Nor zara zu? Nola ezagutzen duzu nire izana?

SORGINA- Hori berdin da! zuk bakar bakarrik konpondu ahal didazun arazoa daukat ...

KUKUBEL- Zer da nigan duzun behar hori. andrea? Neure esku bada gozoko dizut.

SORGINA- Diru beharra daukat, emango ahal zenidake txanpon bat?  
KUKUBEL- Bat ez, bi ere emango nizkizuke edukiko banitu! Baina ni behartsua nauzu andrea.

SORGINA- Ziur al zaude dirurik ez duzula?.

KUKUBEL- Bai, poltsikoak ongi asko arakatu ditut gaur goizean, baina ez dut ezer aurkitu ...

SORGINA- Begira ezazu berriz. Begiratu ongi.

KUKUBEL- Berriz begiratzeko? Bai, bai, begiratuko dut, baina ikusiko duzu...

***Kukubelek eskuak sartzen ditu praktketan eta harriduraz beterik urrezko txanpon bat ateratzen du.***

KUKUBEL- Arraioa! Zer da hau?

SORGINA- Txanpon bat. Ikusten duzu?

KUKUBEL- Zin egiten dizut ez nekiela. Harrigarria benetan! Tori, zeuretzat. Nik baino behar handiagoa izango duzu eta har ezazu. Ia honekin konpontzen duzun zure arazo hori.

SORGINA- Ez, ez dut honekin nahikoa, gehiago behar dut.

KUKUBEL- Hau da izan dudan guztia eta gainera ez dakit nondik eroria.

SORGINA- Begiratu bada ez bada zure zorroan ...

KUKUBEL- Kea! Begira!

***Kukubelek Poltsa erakusten dio sorginari eta ...***

KUKUBEL- Hau ezin da egia izan! Ametsetan ari naiz, hartu, beste bat, hartu dirua! zurea da.

SORGINA- Gutxiago falta zait baina oraindik ez dut nahikoa, begiratu zure zapatetan ea gehiago duzun?

KUKUBEL- Zapatetan ere?

***Begiraten du eta zapatetatik ere diru txanpona ateratzen du.***

KUKUBEL- Arranopola! hauek sorginen gauzak dira! Tori zuretzat!

SORGINA – Mila esker laguna, mila esker!

***Txanponen agerpen magikoa gertatu den bitartean, ez bata eta ez bestea konturatu ez badira ere, lapur bikote bat zelatan izan dute denbora guztian.***

## **2C Oparia**

***Halako batean sorgina eraldatuta berriro, baina, bere benetako lamina itxurarekin agertuko zioi oraingoan ...***

SORGINA- Kukubel! Zure jarrera ezin hobea eskertzeko nik ere zerbait eman nahi nizuke.. Eska egidazu nahi duzuna.

KUKUBEL- Bai? Baina nik ez dut ezerren beharrik.

SORGINA- Nola ezetz? Bai, bai. Sorginkeria iruditzen bazaizu ere, hauxe da nik emango dizudan oparia (keinu magikoa): Txirula bat.

***Bi kainuzko txirula eder bar agertzen da Sorginaren eskuetan ...***

KUKUBEL - Horixe da behar nuena!

SORGINA – Bai, baina txirula hau jotzen duzunean, entzule guztiak hasiko dira dantzan.

KUKUBEL – Benetan? Eskerrik asko, emakume! Inork ez dit sekula horrelako erregalirik egin.

SORGINA- Itxaron, itxaron oraindik ez dut bukatu... denak hasiko dira dantzan eta ez dira geldituko zuk txirula jotzen duzun bitartean.

KUKUBEL- Iufala!! Ez dakit zer egingo dudan neure txirula honekin, baina asko gustatzen zait magia hau.

SORGINA- Gogoratu Laminak esandakoa: Behin baino gehiagotan aurkituko zara sorginkeria honen ahalmenaren beharrean. Behin baino gehiagotan! Agur, neskatoa!

KUKUBEL- Agur, Lamina!

*Sorgina desagertu egiten da eta Kukubel loak hartzen da berriro ere.*

### 3. TXIRULA MAGIKOA ETA LAPURREN AGERPENA

*Zelatan egon diren lapurrak Kukubel lotan eta Sorgina joanda ikustea bidea libre daukate eta lanean hasteko une aproposa aprobeixatu nahi dute. Kukubelen poltsa da eskuratzen duten lehen gauza, baina euren artean liskarra sortzen da, zeinentzat izango ote da? Horren ondorioz lapur nagusiak Bartolo(lapur mutua) mehatxatzen du ...*

LAPURRA - Bartolo dasta itzazu zure bizitzaren azken arnasaldiak .

*Tirabiraren zaratarekin Kukubel iratzartzen ari dela ohartzen direnean, liskarra utzi eta ezkututzen dira.*

*Kukube l iratzartzen denean txirula esku artean duela konturatzen da:*

KUKUBEL - Oh! Txirula magikoa? Orduan ez da aments bat izan!

*Neska pozik, kontent jotzen hasten da, konturatu gabe bi lapur dituela atzean intentzio txarrean. Musika hastean lapurrak dantzan hasten dira, dantzan eta dantzan, triska ta triska musika bukatu arte.*

*Bina joaldiaren atsedendian lapurrak hurbiltzen zaizkio ustekabeen eta harrapatzen dute ohar gabeen. Eta laban handiarekin mehatxatuz:*

LAPURRA- Gora eskuak! Poltsa ala bizia!

KUKUBEL- Baina ...!?!? Har dezakezue nire poltsa, hemen non daukazuen ... baina aurrez esan nahi dizuet ez duzuela ezer aurkituko.

LAPURRA- Gora esku horiek, arnasarik gabe gelditu nahi ez baduzu!

KUKUBEL- Bai, bai, jasoko ditut!

LAPURRA- Poltsa hau hutsik dago.

LAPURRA- Non daukazu dirua?

KUKUBEL- Poltsikoan izan dut baina ....

LAPURRA - Hustu diezaizkiogun poltsikoak.

*Lapurrek modu bortitzean buruz behera jarriko dute poltsikoak hustu nahian, baina dirurik ez.*

LAPURRA - Hemen ez dago ezer. Non daukazu dirua?

KUKUBEL - Zapatetan ere izan dut ...

LAPURRA - Zapatetan? ... (*zapatak ongi arakatuz...*)Hemen galtzerdiak besterik ez dago! Non gorde dituzu sosa?

KUKUBEL- (*Trufari*) Belarri-zuloetan ere gorde izan dut ...

LAPURRA- Belarrietan?

LAPURRA- Belarriak garbi garbiak dauzka. Non ezkutatu duzu dirua?

KUKUBEL- (*Txantxarekin jarraituz ...*)Sudur zulotan eraman izan dut ere baina ...

LAPURRA- (*Sudur zuloak aztertuz*) Baina sudurtzuloak ataskaturik dauzka. Berdin da honekin zabalduko dizkiot sudurzuloak nik. Hemen izango da gure altxorra.

*Hautsak botatzen dizkio eta ...*

KUKUBEL- Atxis!!

LAPURRAK- Oh !! (*Hautzen eraginaren kontagiotik libratu ondoren*) Hemen ere ez? Non daukazazu urreak?

KUKUBEL- (*Ipurdia erakutsiz*)Hemen ere gorde izan dut baina ...

LAPURRAK- Non?? (*Neskatoaren ipurdiari begira*).

KUKUBEL- (*Puzkerra*) Purrrrruuuuttt!!!

***Lapurrek, konortea berreskuratu ondoren, Kukubel goitik behera aztertu eta ez dutenez zentimorik aurkitu, mendekuaren bila hasten dira.***

LAPURRA- Dirurik ez badu, zer egingo dugu neska mukitsu honekin? (*Pentsalariaren plantak egin eta badatorkio ideia*) Ondo, besterik ezean, artaldea kenduko diogu eta kitto!.

KUKUBEL- Hartu nahi baduzue, baina txirularen soinurik gabe ez zaituzte jarraituko... Hala ere, kendu nahi badidazue...

LAPURRA- Ez al dizugu esan kendu egin behar dizugula ala? Eta txirula ere, ardiak errazago menperatzeko.

SORGINA (Off) – (***Kukubelek bere baitan Sorginaren aholkua gogoratzen du***) Behin baino gehiagotan aurkituko zara sorginkeria honen ahalmenaren beharrean. Behin baino gehiagotan!

KUKUBEL- Beno... baina kendu aurretik erakutsiko dizuet nola jo behar den ardiak zuzentzeko...

LAPURRA: Tira ba, ikusi eta ikasi behar dugu nola jotzen den katxarro hori!

KUKUBEL- Hori, hori, nik jo txiruliruli eta zuek dantzan egin!

***Lapurrak, ohartu gabe, dantzan hasten dira txirularen musikarekin batera, hasieran pozik, barre eta oihuekin batera...***

LAPURRA- Segi, segi jotzen neskatotxo!

***Baina nekatu direnean gelditu nahi eta ezin dutela ikusten dutenean ...***

LAPURRAK- Nahikoa da, nahikoa!

- Mesedeez!!

-Isil ezazu tresna hori!

***Baina Kukubel ez da tontoa eta lapurrak lurrera ziplo erortzen diren arte txirula jotzen jarraitzen du. Baina lapur nagusia ohartu da txirularen botereaz eta beren maltzurkerietarako tresna aproposa dela bururatzen zaio.***

LAPURRA - Bartolo txirula hori magikoa duk, eskuratzen badiagu aberastu egin gaitzek! ***Kukubel lapurren intentzioak segituan susmatu ditu eta txirula soinuak aireratzten hasten da segituan ...***

LAPURRA- Ez! Hobe hemendik alde egiten badugu, inguru hau sorginduta dago eta. Agur, agur, geretu ezazu hori behingoz! bagoaz eta...

***Eta korrikan ikusten ditu lapurrak alde egiten.***

KUKUBEL- Orain ez nauzue atzemango!

#### **4 APAIZAREN AGERPENA**

##### **4.A Herrian meza nagusia**

***Herrian, herritarrak Mateo Txistuk zuzendutako meza entzuten ari dira, erbi batek, ehiza txakurrak zaunkaka atzean jarraika dituelarik, elizako atea zeharkatzen duen unean.***

***Mateok Txistu, apaiz ehiztaria, hau ikustean, meza utzi, zakurra deitu eta erbiaren atzetik doa abiada bizian.***

***(Txakurra eta erbia elkarri jarraika.)***

##### **4B Mateok Kukubelekin egiten du topo**

***Apez ehiztaria, Kukubelen inguru horretara hurbiltzen da erbiaren atzetik, erbia muturren aurrean gelditzen zaio eta apaiza, eskopeta prestatu eta tiroa egiteko prest dagoenean, Kukubel, ezertaz konturatu gabe, txirula jotzen hasten da. Orduan apeza dantzan hasi, tiroa bote eta erbia galdu egiten du. Dantzan, dantzan eta dantzan hasten da, sasieta lapar zorrotzek bere larru eta jantziak urratzen dizkietela, dantzan eta dantzan. Honen haserrea txistua isildu denean!***

KUKUBEL – (*Mateo lurrean ikusita*) Ene! Nondik erori da hau? Mateo Txistu da eta!  
 Mateo zer egiten duzu lurrean? Altxa zaitez gizona!  
 MATEO- Neskato arraioa, zure sorginkeri madarikatu horregatik erbiak alde egin dit.  
 Sorginduta zaude eta ikusiko duzu zer egiten dugun guk zu bezalako  
 sorginekin!!  
 Kukubel sorgina da!!  
 KUKUBEL - Baina Mateo, nik txirula jo besterik ez dut egin ...

*Mateo, artzainaren hitzei muzin eginez, herrirantz abiatzen da oihu bizian ... Kukubelek atzetik doakio nahigabe egin duela adierazi nahian*

MATEO- Herritarrok, Herritarrok, Kukubel sorgina da!!

## 5. APAIZAREN SALAKETA

*Apezakherrira heldu eta herritarrok deituko ditu, Kukubel salatu nahi du herrian: sorgina dela eta urkamendira eraman behar dela... Herriko alde batetik bestera dabil oihuka ...*

APEZA- Herritarrok! Kukubel sorgina da, deabrua darama barruan!  
 Bere txirularekin bazterrak nahastatu, sorgindu, zorutzen ditu.  
 Gurekin ere gauza bere egin dezake!  
 Harrapa dezagun bestela akabatuko gaitu!!!

*Herritarrok, apaizaren aitorpenak eraginda, atzetik doazkio, denak oihu bizian ...*

HERRITARRA A- Harrapa dezagun sorgin hori!!  
 HERRITARRA B - Zer zaude hor, txorimaloarena egiten?!  
 HERRITARRA C - Goazen sorgina harrapatzera! ...

*Herritarrek neska bahitu ondoren, eskuak sokaz lotuta daramate epaiketarako bidean.*

## 6. EPAIKETA

### **6 A Epaiketa**

HERRITARRAK: Bla, bla. bla ...  
 MATEO- Isilik jaun andreok, Kukubel epaituko dugu sorgina delako.  
 HERRITARRAK- Kukubel madarikatuta dago! Ora pro nobis ...ardo ta ogiz.  
 KUKUBEL- Nik ez diot inori inolako minik egin!  
 MATEO- Jaun andreok, neskato hori bazterrak nahastatzen ikusi dut nik.  
 HERRITARRAK- Deabrua darama aldean! Dominus vobiscum ...Baztanen Arizkun.  
 MATEO- Loreak, arbolak eta basoko animaliak konkortzen ari ziren bere sorginkerien ondorioz!  
 KUKUBEL- Dantzan ari ziren alai!  
 HERRITARRAK- Zigorra merezi du! In nomine patriis et filii ...ezin dugu hola ibili.  
 MATEO- (*Kukubeli zuzenduta*) Ardiek dantzan egiten dute?  
 HERRITARRAK - Ez!  
 KUKUBEL- Bai.  
 MATEO- Loreak dantzan aritzen dira?  
 HERRITARRAK - Ez!  
 KUKUBEL- Bai  
 MATEO- Eta nork jotzen zuen gauza guzti horiek dantzaratzen zituen musika?

KUKUBEL- Nik, nire txirula nagikoarekin.  
MATEO- Txirula magikoa esan du?  
KUKUBEL- Bai, Laminak egindako oparia da!  
MATEO- Lamina batek, hau da, sorgin batek .... Ikusten duzue herritarrok, sorginekin lagun dabilena sorgina bihurtzen da. Kukubel sorgina da, andre eta gizon!  
HERRITARRAK- Kirie eleison...  
MATEO- Urkamendira sorgina! Sekulorun sekulotan ...  
HERRITARRAK- Ez gaitezen geldi lotan ...(bis)

## 6B Epaia

MATEO- *(Tok, tok, tok)*  
Herrian ez dadin  
ontasuna agortu,  
sorgina delako  
dezagun zigortu.  
Arimarik ez du  
gaizkile zen sortu,  
urkamendia du  
sorgin txarrak lortu.  
HERRITARRAK- Urkamendia du  
sorgin txarrak lortu,  
urkamendia du  
sorgin txarrak lortu!

## 6C Zigorra

MATEO- Eraman ezazue urkamendira ...  
HERRITARRA A- Bai ... Ala, Kukubel goazen ...  
HERRITARRA B- E, e! Gauzatxo bat.  
MATEO- Zer nahi duzu?  
HERITARRA A- Eta urkatu gabe zergatik ez dugu zazpi burudun herensugearengana bidaltzen.  
HERRITARRA B- Bai, horrela gure aurtengo eskaintza berarekin beteko dugu.  
HERRITARRA C- Hori, hori! Herensugearen kobazulora eramango dugu.  
HERRITARRA D- Bai goazen ...  
HERRITARRA F- Hori ideia hori izan duzuna Miren.  
HERRITARRA G- Bai horixe! Aurten ez dugu zozketarik egin beharko herensugeak zein neska jango duen jakiteko.  
HERRITARRA H- Eta urtebetez bakean utziko du gure herria.  
*Kukubel leturik daramate herensugearen kobazuloaren atarira.*

## 6E Bitartean larrean

*Ardiak narradorearena betetzen.*

ARTALDEA- *(Narradore giza)*

- Estu dabil gure Kukubeeel
- Dena jarri da beeeere kontran
- Zer egingo dugu Kukubel gabeeee?
- Herensugearen hatzaparretatik bizirik ateratzeko modurik ez dago!
- Bai, egon badago, mingainak moztuz gero herensugeak hil egiten dira.
- Baina nork abisatuko du? Nork ohartaraziko du Kukubel?
- *(Ikusle goari zuzenduta)* Zuen laguntza behar du. lagundu ... abisatu!

## 7 HERENSUGEAREKIN BORROKAN

### **7 A Herensugearen kobaren atarian...**

HERRITARRA A- Ala, gelditu zaitez hor.

HERRITARRA B - Gaixoa!

KUKUBEL- Haizuek! Bakarrik utzi aurretik azken nahia betetzen utziko didazue?

HERRITARRA A- Ez!

HERRITARRA B- Hori ezin zaio inori ukatu! Zer nahi duzu?

HERRITARRA A- Tira, tira zer nahi duzu?

KUKUBEL - Herensugearen atzaparretan erortzen naizenean nire txirula eskuartean izatea nahiko nuke.

HERRITARRAK - Ongi da. Emaiozu txirula hori, zabal dezagun kobazuloaren sarrera eta alde egin dezagun hemendik lehen bai lehen.

HERRITARRA 2- Tori zure txirula hori!

*Txirula Kukubelen ondoan lurrera bota, haitzuloaren ahoa libratu eta han bakarrik ixten dute neskatoa loturik ...*

### **7B Herensugearekin borroka**

*Kukubelek, lokarrietik libratu egiten da eta txirularen indarrari esker herensugeari zazpi mihiak bana- banan kentzea lortzen du et gorde egiten ditu. Herensugearengandik libre dagoela Mateo hurbiltzen ari dela ohartzten da eta apaizaren beldurrez haitzuloan ezkututzen da.*

## 8 MATEOREN TRANPA

MATEO - Non demontre sartu da erbi alu hori!.

*Herensugea hilda ikustean:*

MATEO- Arraioa! Herensugea hilda dago!

Buruak mozten badizkiot herrian heroitzat hartuko naute.

*Esan eta egin. Buruak estali ondoren ...*

MATEO- Lagunok herensugea hil egin dut! Herensugea hil dut!!

*Herritarrak kobazulo ingurura hurbilduko dira Mateoren deiari erantzunez ..*

HERRITARRA A - Zer izan da zarata hori On Mateo?

MATEO - Begira hor atzean.

HERRITARRA B- Herensugea da!

HERRITARRA C- Hilda dago!

HERRITARRA D- Bai hilda seko dago.

MATEO - Bai, neuk hil dut!

HERRITARRA - Nola lortu duzu hiltzea?

MATEO- Borroka gogorra izan dut berarekin, eskopeta kendu dit, baina azkenean ezin izan du nire kemena jasan eta akabatu dut.

HERRITARRAK- Herensugea hilda dago!! Mateo Txistuk hil egin du! Gora Mateo Txistu!!

HERRITARRAK- Gora gure salbatzailea!!!

MATEO- Eskerrik asko lagunok! Hemendik aurrera familia guztietako neskak lasai bizitzeko aukera izango duzue, bukatu dira herensugearen janaria izateko zozketak.

HERRITARRAK - Urra!!



MATEO - Baina, lasaitasun hori eskertu diezadazuen, datozen urteotan, gaurko egunean, zazpi urrezko txanpon eman beharko dizkidazue famili bakoitzeko, horrela nire babespean bizitzeko aukera izango duzue.

HERRITARRA A- (*Hasieran zalantzati baina gero proposamena onartuz ...*)Horrela egingo dugu Mateo jauna.

HERRITARRA B- Zu zara gure salbatzailea.

HERRITARRAK- Gora Mateo! Gora!!

*Une horretan l haitzuloaren barrenetik sortutako ahots batek jai giroa moztu egiten du.*

KUKUBEL- Gezurra da hori!

HERRITARRAK- Herensugea bizirik dago!

MATEO- Ez da posible, neuk hil dut!

KUKUBEL- (*Koba barrenetik berriro ere*) Gezurti Mateo! Gezurti!

MATEO- Nor deabru zara?

HERRITARRA A- Kukubelen ahotsa dirudi.

MATEO- Ezin da izan, Kukubel herensugeak jan du!

KUKUBEL - (*Haitzulotik ateratzen*) Hori ere gezurra da.

HERRITARRA A- Zer?

HERRITARRA B- Ara! Kukubel bizirik dago!

HERRITARRA C- Bai, Kukubel bera da!

KUKUBEL- Mateok ez du herensugea hil!

MATEO- Iruzurtia eta maltzurra zara Kukubel, neuk hil dut herensuge hori eta frogatzat hemen ditut beren zazpi buruak.

*Estalita dauden lekutik ateratzen ditu herritar guztiak konbentzitzen.*

KUKUBEL- Zazpi buruak Mateok ditu baina denak mingain gabeak, gizon gezurti eta zoroak engaina nahi gaitu.

HERRITARRAK- Zer??

KUKUBEL- Lagunok, hemen dira mingainak.

HERRITARRAK- Oh!

HERRITARRA A- Egia da, Kukubelek hil egin behar izan du herensugea!

HERRITARRA B- Kukubel da gure benetako salbatzailea!

HERRITARRA C- Barkatu gure portaera.

*Mateo egoeraz oharturik ...*

MATEO- Herritarrok, heritarrok dena azalduko dizuet, ez didazue ongi ulertu ...

HERRITARRA A- Ulertu ez? Bedira, tori zure buru hau!

HERRITARRA B- Bai, hauk ere eta jan itzazu pilpilean.

HERRITARRA C- Eta hauek!!!

MATEO- (*Etsiturik*) Harrapatuta nago! Hobe dut hemendik alde egitea lehen bai lehen.

HERRITARRAK- Gora Kukubel!! Gora!! Ospa dezagun gaurko eguna festa eginez! Kukubel, jo ezazu zure txirula magikoa! Egin dezagun dantzan!

## **9 AGURRA**

ARTALDEA –

- Mateo Txistuk, gezurretan harrapatu zuten, herritik alde egin zuen eta ez zuen inork berriro ikusi.
- Ez bere herrian ezta ere inguruetan.
- baina desagertua bazen ere bere zakurren zaunkak eta bere txistuak sarritan entzuten dira oraindik ere herriko inguruetakoko mendi eta basoetatik.

- **Eta herritar haiek ondo bizi baziren, gu hobeto bizi gaitzala!**